

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKALTZAINDIA/
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA:**

HITZARMENA/CONVENIO

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Pello Salaburu Etxeberria jaunak eta Euskaltzaindiko burua den Jean Haritschelhar jaunak, Bilbon bildurik 1997ko abenduaren 12an, honako hau erabakitzen dute.


Euskaltzaindiak eta EHUK elkarrekin sinaturik duten hitzarmenean interesgarritzat jotzen da zenbait lan aurrera ateratzea, baliagarriak izan daitezkeelako bai EHUKo ikasleentzat bai Euskaltzaindiko batzordeetan lan egiten duten batzordekideentzat ere. Lan horiek hirugarren eta seigarren artikuluetan zehazten dira batez ere. Lan hauetarako 6.000.000.-ptako diru kopurua jarriko du EHUK eta Euskaltzaindiak jartzen dituen baliabideak beste horrenbestean baloratzen dira. Hala egitea erabaki zuen erakunde bien jarraipen batzordeak bere azkeneko bilkuran, 1997ko ekainaren 26an.

Honako hauek dira diru honekin bideratzen diren lanak:


- R. Lafon hizkuntzalari eta euskaltzale ospetsuaren artikuluen argitaratze-lanak aurreikusiak baino handiagoak izan direnez eta gai-aurkibidea etab. eranstea erabaki denez, kostua ere uste baino gehiago igo da. Hortaz, behar den dirutza ezarriko da tarde hori estaltzeko: 2.000.000 pta.
- A. Abbadie-ren omenezko iraileko Biltzarra. EHU partaide denez, laguntza emango da honetarako: 2.000.000 pta.
- Biltzar horretako aktak argitaratzeak dakartzan gastuen zati bat ordainduko da. Honetarako 2.000.000 pezeta jartzen dira.

Dokumentu hau sinatzen denean ordainduko dio EHUK Euskaltzaindiari 6.000.000 pezetako kopuru hori, aldi bakarrean.

Eta hau sinatzen da Leioan eta Bilbon, 1997ko abenduaren 12an.



Pello Salaburu Etxeberria jauna,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektorea



Jean Haritschelhar jauna,
euskaltzainburua